

Nerea Bedialauneta Alkorta
Ondarroa

Euskal Herrian «zutik» mantentzen den azken egurrezko atunontzia da *Antxustegi*. Sabin Antxustegi (Ondarroa, 1963) eta Xabier Lakaren (Ondarroa, 1954) aitona eskatu zuen hura eraikitzeko, 1958an, eta ordutik hamaiaka istorio bizi izan ditu ontziak. Bizi gogorra zuten bertako arrantzaleek, txitxarro, antxo eta hegalaburretara urrun joaten zirelako. «Nire aitak, esaterako, ni jaio nintzen egunean – abuztuaren 19an – txalupa hartu eta Kanarietarantz joan behar izan zuen. Hiru hilabete nituela ezagutu ninduen lehenengoz», gogoratu du Antxustegik, hartako Sabin Antxustegi patroiairen semeak.

Orain, ordea, antxustegitarrentzat horren berezia izan daitekeen ontzia desagertzeaz egon liteke. Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan dago atunontzia, eta aspalditik usteltzen hasita dagoela ere salatu dute behin eta berriro. Eta hori gutxi balitz, azken albiste arabera, museoak erakusketara iraunkorrean dituen *Antxustegi* eta *Gavilan II* ontziak kendu egingo ditu. Horren aurka borrokan ari dira bi lehengusuak.

Ontziaren patua ez zen museo batean egotea, berrogei urtez arrantzari ibili ostein atunontzia desegiteko asmoa baitzuekaten antxustegitarrek. Baina museo era horretako ontzi baten bila zebilen, eta haiei ematea erabaki zuten 1997. urtean. *Antxustegi*-k zuen diseinua gustatu zitzaion museo arduraduneri, eta lanean ziharduena azken egurrezko atunontzia ere bazen, gainera. «Aste eta erdi itsasoari utzi, eta bertara eraman genuen itsasoz. Nik neuk eraman nuen, gainera, Ondarroatik Bilbora. Txalupa zegoen bezala utzi genuen hantxe». Eta horrela jarraitzen du. Izan ere, atunontziari ez diote inolako mantentze lanik egin, antxustegitarrek salatu dutenez. Ondorioz, ontzia usteltzen lagatzen ari direla salatu dute. Atunontzia zaharbertitzea diru asko kostatzen dela argudiatu diete behin eta berri museoek, eta horregatik ez dute konpondu.

Azken urte hauetan guztietan museoaren usteak guztiz aldatu direla salatu dute familiako bozeramaileek. Bertara eraman zutenean maila horretan irauten zuten bakarra eta azkena zela esan zieten. Orain, hura kentzeko maila horretako gehiago daudela argudiatu dute. Horregatik, *Antxustegi* kentzeko dituzten arrazoiak ez



ITSASOARI BEGIRA



BIZKAIKO HITZA

«Gure ahotsari eztarria jartzea eskatu nahi diegu erakundeei»

Sabin Antxustegi eta Xabier Laka • 'Antxustegi' -ko jabe ohiak

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan dago 'Antxustegi' atunontzia, baina bertatik kentzeko asmoa azaldu du museoak. Haren jabea izan zen Antxustegi familiak urteetan konponketarik egin ez izana salatu du.

dituzte ulertzen Lakak eta Antxustegik. Museoak familiari bi argudio eman dizkio atunontzia kentzeko. Alde batetik, haren erakusketa zikloa amaitu dela. «Txalupa hartu zutenean behin betiko erakusketan edukiko zutela esan ziguten, eta, orain, haren erakusketa zikloa amaitu dela. Ulertezina da urte gutxian nola aldatu duten erabakia», dio, haserre, Lakak. Bestetik, ondare balio urria duela. «Lehen balio handia bazuen, nola liteke orain balio eskasa izatea? Ez dugu ezer

ulertzen», gaineratu du Antxustegik.

Protesta eta mobilizazioak

Ontzia kentzeko asmoa orain eman duten arren, antxustegitarrek urtebete daramate ontziaren egoera «tamalgarría» salatzen. Museoaren webgunean itsasontziaren egoera «negargarria» erakusten duten argazkiak bidali zituzten. Horrez gain, haren egoera salatzen zuten kexa bat baino gehiago ere idatzi zuten, baina horietako asko ezabatu ere egin

zizuten museoek. Bide hori agortuta, iraillean bertako zuzendariarekin batu eta euren eskakizun formalak jasotzen zituen idatzi bat eman zioten. Inongo erantzunik ez, eta bigarren batzarra egin zuten azaroan. Erantzun bera. Horregatik, museoak zuzendariari eta bertako patronatuko kide guztiei txosten bat bidali zien. «Ondarearen egoera profesionala eta legala jaso dugu bertan. Museo baten betebeharrak zaintzarena baita, eta *Antxustegi*-ren kasuan hori ez da betetzen.

Haien porrotaren ispilua bihurtu gara. Ondarea zaintzen zelako lan txarra egin duten ikusteko balio du», gaineratu du Lakak.

Martxoan bidalitako txostenaren erantzunik jaso ez, eta atejoka hasi dira. Esaterako, erakundeekin hainbat bilera egin dituzte. Hortik jasoko dituzten erantzunen arabera, Arartekora, Espainiako Kultura Ministeriora edota ondarea babesteko Europa mailako erakundeetara joateko

«Haien porrotaren ispilua bihurtu gara; ondarea zaintzen zelako lan txarra egin duten ikusteko balio du»

asmoa dute. Eta paradoxikoa badirudi ere, inoiz baino indar gehiagorekin sentitzen dira egun, *Antxustegi* onik gordetzeko mugimendua bizitu egin delako, euren hitzetan. Borroka horretan jarraitzeko, beraz, erakundeen birtartekaritzaz ezinbestekoa dela argudiatu dute. «Gure ahotsari eztarria jartzea eskatzen diegu erakundeei», eskatu du Lakak.

Konponketa lanak zenbat eta gehiago luzatu, ontziaren egoerak okerrera egingo du, baina antxustegitarrek bere horretan jarraitzen dute. Edozein aukera txiki baldin badauka ere egurrezko azken atunontzia konpontzea merezi duela diote. Esperantza izpi bat ere badaukatela baieztatu dute bi lehengusuek, «gauzak lehenbailehen eta berandu baino lehen» egiten badira behintzat. «Txalupa errespetu pixka batekin tratatzea nahiko genuke, berreskuratzeko aukeraren bat dagoen bitartean behintzat», azaldu du Antxustegik.

Era berean, *Antxustegi* ez ezik, museoaren toki berean dauden beste hainbat itsasontzi egoera okerrean daudela ere salatu dute. «Legatzetan aritzen zen *Beti Salada*, esaterako, bertan usteldu zen, eta ezer egiten ez bada, *Antxustegi*-k ere bide beretik jarraituko du». Jakin badakite berreskuratzeko aukerak oso urriak direla, baina, era berean, erantzuleak zein diren esatea beharrezkoa dela uste dute, etorkizunean horrelakorik berriro gerta ez dadin. «Guk, beharbada, ez dugu berreskuratzeko *Antxustegi*, baina bere izpiritua hor geldituko da. Hori da guretzat garrantzitsua. Horrek salatu du, kasuan kasu, etorkizunean nortzuk izan ziren honen guztiaren errudun. Eta baita zergatik izango duten etorkizunean izango duten ondare urria ere».